

## **Ekarpen batzuk ikasle etorkinaren Integrazio Plangintzarako**

Oraindik ezin ditugu proposamen zehatzak egin Administrazioak ez digulako lan egiteko txosten bat helarazi, baina alde zuzenetik ahoz ailegatu zaizkigun berrien arabera interesgarria iruditu zaigu gure ustez Eskola Komunitatean eztabaida zabaltzeko beharrezkoak diren zenbait ekarpen plazaratzea.

Datuen arabera argi dago ikastetxe publikoetan hartzen direla ikasle etorkinen hiru laurdenak. Honi guztiari erantsi beharko genioke behar bereziak dituzten ikasleria zein baztertze arriskuan dagoenaren gehiengoa ia oso-osorik bertan eskolatuta dagoela.

Honek guztiak ondorio txarrak sortzen ditu ; hau da, ikastetxe batzuek etorkinen ghetto bihurtzen ari dira eta ondorio gisa ikasleria sailkatzen ari da maila sozialaren arabera, honek dakarren desorekarekin sare desberdinen artean.

Administrazioak ikastetxe publikoekin eta pribatu kontzertatuekin erabiltzen dituen kriterio desberdinek mesede baino ez diote egiten egoera honi (onarpenak, ratioa...) nahiz eta biak diru publikoarekin finantzatuak egon.

Gure ustez ikasleria etorkinak planteatzen dituen beharrei aurre egiteko bakar-bakarrik hezkuntza sistema osoaren konpromezutik posible izango da. Horretarako diru publikoarekin finantzaturako eskola guztiek, pribatu kontzertatuek nahiz eskola publikoek, beste hizkuntzetako, etnietako, behar bereziak dituzten edo ezgaituak diren ikasleria kupo bat izan beharko lukete. Soil-soilik ikasleria anizetik abiatuta egunero egiten den lan etengabeari esker lortu ahal izango dira gizarteak planteamendu integratzaile, solidario eta ez baztertzaitzat hartzen dituen helburu hezitzaileak. Diru publikoa, inolaz ere ezin da erabili printzipio hauek betetzen ez dituen ikastetxe bat mantatzeko.

Ildo horretatik jarraituz, horretara eramango gaituen zenbait neurri aztertzea proposatzen dugu:

- Diru publikoarekin finantzaturako ikastetxetan gutxienezko ratioak ezarri behar bereziak dituzten ikasleak, etorkinak, minusbaliatuak eta baztertze arriskuan dauden ikasleak hartzeko; hau betetzen ez duten ikastetxeak ez integratzaile bezala kontsideratuz honek ekar ditzakeen ondorio guztiekin.
- Lortu ikastetxe batean baztertze egoeran edo etorkinak direnen ikasle kopurua inguru horretakoa baino handiagoa ez dadila izan.
- Plaza kopuru bat erreserbatu ikastetxe desberdinetan kurtsoa hasita heltzen diren ikasleentzako.

### **Matrikulazio batzordeak direla eta:**

Oso interesgarritzat jotzen dugu hiru lurraldeetako irizpide komun batzuk ezartzea.

**Kezkatzen gaitu:**

**\* Orain arte Bizkaian martxan zeuden eskualdeetako batzordeak desagertzea. Gure ustez batzorde hauek ezagutza handiago bat dute.**

- **Batzorde hauen lana epez kanpo matrikulatutako ikasleei bakarrik zuzendua egotea.**
- **Batzorde hauen izaera soil-soilik tekniko izatea, ez familien, ez inplikaturako irakasle zein ikastetxeen inolako parte hartzerik gabe.**

**Baliabide honen funtzionamendu on baterako ideia batzuk:**

**Eskualdeko matrikulazio batzordeak egon behar dira, eta gainera, ikasle etorkinari erantzun egoki bat emateko aipaturako batzordeak antolaketaren ardatza izan beharko luke.**

**Batzorde hauetan Hezkuntza Saila, Udaletxea eta eskualdeko ikastetxeen ordezkariak (irakasleen ordezkariak, guraso elkartekoak...) egon beharko lirarteke, batez ere gaiarekin lotura handiena daukatena. Halaber, ezinbestekoa iruditzen zaigu batzorde hauetan sindikatuen parte hartzea (eskualdetakoan ez bada, herrialdetakoan behintzat).**

**Batzorde hauek ikasturtean zehar izaera iraunkor bat izan beharko lukete.**

**Batzorde hauek hartutako ebazpenak eta irizpideak ikasleria osoarentzako izan beharko lirarteke.**

**Batzorde horiek arduratu beharko lirarteke, neska-mutikoak eskolaratzekoan erabaki bat hartzeko orduan, ikasle horien gurasoek behar duten informazioa eskuratzeaz arduratuko lirarteke. Baita ere ikastetxe eta eredu egokiaren proposamena egin beharko lukete, beti ere kontuan izanda helburua baztertze arriskuan dagoen ikaslea zein ikasle etorkinen integrazioa dela. Proposamen hau egiterakoan izan beharreko irizpide batzuk honoko hauek izan daitezke:**

- 1. Familiaren egoera baloratu eta ikusi zein den bere bazterketa sozial maila.**
- 2. Ikaslearen eskola ibilbidea kontuan hartu.**
- 3. Adina**
- 4. Familian hitz egiten den hizkuntza.**

## **HIZKUNTZ EREDUAK**

**Hizkuntzaren gaia ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleak behar dituen edozein motako laguntzak planifikatu eta bere integrazioa gelan errazteko orduan**

**Oso argi daukagu etxean hitz egiten den hizkuntzatik abiatzea ikasle etorkinarentzat nahiz bertakoentzat mesedegarria dela. Dena den, bertako ikasleriaren gehiengoaren eredu elebidunetan matrikulatuta dagoen bitartean, ikasle etorkinari eskaintzen zaion irtenbidea askoz murriztagoa da, A erudian**

**matrikulatzea askoz errezagoa delako eta itxura batean egokiagoa, baina errealtateak esaten digu bene-benetan askoz baztertzaileagoa dela.**

**Gure iritziz ikasle guztiek izan behar dute Erkidegoko bi hizkuntzak ikasteko aukera. Honek ekartzen du beharrezko baliabideak garatzea eta martxan jartzea (euskaran eta gaztelanian errefortzuak, langile espezializatuak hornitzea ikastetxeko plantila, hizkuntza eskakizun hauetarako egokiak diren materialak ekoiztea, informazioa zabaldu haurrak eredu euskaldunetan matrikulatzera animatuz,e.a....)**

**Era berean eta egun daukagun ereduaren sistema gainditzen ez dugun bitartean komenigarria izango litzateke lehen urrats moduan, beti ere salbuespen dekretua desagertze aldera, beronen ezarpena egitea kontuan izanda helburu garbi bat, hau da, ikasleak bere eskolaritatea amaitu behar izatea bi hizkuntzak ongi menperatuz alegia. Salbuespena ezin da ulertu inolaz ere gelara ez joatea bezala, haatik, egoera honetan dagoen ikasle bati urteko egokitzapen ebaluagarri bat prestatu beharko litzaioke ( nahiz eta nota ez eraman bere curriculumean), iraupen mugatu batekin, gelako beste ikasleekin integratu ahal izateko . Eskaera honi aurre egiteko beharrezko materialak eta giza baliabideak beharko lirateke.**

## **BALIABIDEAK**

**Beharrezko baliabideak zehazteko orduan, ezinbestekoa da ikastetxe bakoitzaren egoera kontuan hartzea, hau da, ongi aztertu behar da zeintzuk diren beronen behar globalak ikasle etorkinaren integrazioari erantzun egoki bat eman ahal izateko. Kontuan izateko beste elementu bat da ikasle etorkinen ehuneko batek egokitzapen kurrikular jakin bat beharko duela gainera( hizkuntza, eduki kurrikularrak edo hezkuntzako behar bereziei erantzuteko).**

**Gure iritziz eskualdeko batzordeak proposatu beharko lituzke, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera, beharrezkoak iruditzen zaizkion baliabideak ikasle etorkinen beharrei aurre egiteko.**

**Gure ustez bermatu beharko lirateke ikastetxe bakoitzaren proiektuari erantzuteko adina giza baliabide.**

**Ikastetxeko plangintzak islatu behar du gai honekin lotutako jarduerak eta horretarako behar diren materialak eta giza baliabideak.**

**Berritzeguneetatik eskualdeko ikastetxe desberdinen egoerak antzeman beharko lirateke eta proiektu bat eratzeko zailtasun bereziak dituzten ikastetxeei laguntza emateko. Interesgarria izango litzateke Berritzegune bakoitzean lan hau koordinatuko lukeen pertsona bat egotea.**

**Oso garrantzitsua da koordinatzen hastea laguntzarako pertsonalarekin: gizarte-laguntzaileekin, interpretariekin.**

## **INFORMAZIOA**

Guri iruditzen zaigu hori dela familia etorkinek heziketa-sistemarekin izango duten lehen harremana, beraz, garrantzi handikoa da.

Ez dugu ezagutzen ikastetxeetara bidaliko den txosten informatiboa, eta momentuz ezin dugu ezer gehiago zehaztu gai honen inguruan.

Gure ustez informazio zehatz eta argi bat izan behar du heziketa-sistemaren inguruan, etapak, hizkuntza ereduak, izapide administratiboak. Guretzat zaila suertatzen bada, beste kulturetatik beste parametroekin datozeneztat, amesgaizto bihur liteke.

Kontuan hartu behar da sarritan ikasle etorkina ikastetxera ailegatzen dela beste erakundeetatik pasa ondoren (EEGak, Udaletxetako gizarte-laguntzaileak, Osasun-zentroak) . Hezkuntza administrazioak bideratu beharko luke heziketa sistemari buruz erakunde desberdinek ematen duten informazioa .

Eduki bateratu batzuk ekoizteaz gain, gure ustez lan egin beharko litzateke informazio sare bat eratzen gizarte zerbitzuekin eta populazio etorkina laguntzen duten erakunde desberdinekin batera.

Jorratu beharreko beste gai bat da informazio on batera ailegatzeko mekanismoak garatzeko dagoen beharra. Arlo honetan Berritzeguneek eta eskola bakoitzean zehazki honetarako formatuta dauden langileek eduki dezakete paper garrantzitsu bat.

## **FORMAZIOA**

Ez daukagu inolako informaziorik arlo honi buruz Sailak daukan Plangintzaren inguruan, baina uste dugu gai honi heltzea era egoki batean ikasle etorkinen integrazioa zuzenduta dagoen edozein plangintzaren oinarrietako bat izango dela.

Gure ustez Formazioa maila desberdinetan eratu behar da, beti ere lortu nahi ditugun helburuen arabera.

### **1. Ikastetxeetako irakasleriaren formazioa.**

Edozein integrazio plangintza aurrera ateratzeko klaustroaren inplikazioa ezinbestekoa da. Helburu hau lortzeko formazioa ezinbestekoa da, eta horretarako ikastaro zehatzak antolatu beharko lirateke ikasle etorkinentzako interbentzio proiektuak dituzten ikastetxetako irakasleentzat. Ikastaro hauetan aspektu hauek landu beharko lirateke:

- Eskola eta komunitatea
- Harrera planak
- Hizkuntzaren papera
- Eskuhartze hezigarriak arlo desberdinetatik abiatuta

### **2. Errefortzuko irakasleen formazioa. Ikastaro bereziak hizkuntza osagarrien trataerari buruzkoak eskola alorrean:**

- **Alor teorikoa**
- **Edukietan oinarritutako hizkuntzaren ikaskuntzarako hurbilketa**
- **Materialen analisisia eta garapena**

### **3. Sistemaren sentsibilizazioa:**

**\* Formazio ikastaroak hezkuntza komunitate osoarentzat, bai ikastetxean bertan zein eskualdean , kultur arteko heziketa integratzaile eta ez arrazista sustatuz eta bultzatuz.**